

# MUNDU HOBE BATERAKO UNIBERTSITATE KOOPERAZIOA

## Datu orokorrak



Seihilekoa: **S1 eta S2**

Hizkuntza: **Euskara**

Formatua: **Online Eskolak**

## Deskribapena



Ikasgai honetan munduaren egoeraren gaineko ikuspegi kritikoa garatzeko tresnak landuko ditugu. Etorkizunean zuen bizitza profesionalean erabakiak hartzeko baliabide ezberdinak gerturatuko zaizkizue; munduaren erronka nagusien eta horien datuen bilketa, interpretazioa eta hausnarketa. Mundua ulertu, ikertu eta zure ekarpena topatzea helburu badaukazu, anima zaitez gurekin bide hau egitera.

## Metodologia



- Debate dinamikak
- Datuen bilketa eta interpretazioa
- Ahozko aurkezpenak
- Hausnarketa pertsonalak
- Txosten idatzia

## Edukiak



### 1 Gaia: Gaur egungo mundua

- Globalizazioa
- Botere harremanak
- Ustiapen, ekoizpen, kontsumo kate globalak
- Gaur egungo munduaren erronka nagusiak

### 2 Gaia: Gure ardura munduan. Mundua hobetzeko proposamenak.

- Ekonomia soziala: kooperatibagintza
- Nazioarteko Lankidetzaz
- Kooperazio Kooperatiboa Mundukide

### 3 Gaia: Amaierako Lana